7. Ezarritako lurralde eremuak berariazko baimenik gabe gainditzea arau hauste administratibo zigorgarria izango da, Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legearen 143.u artikuluan xedatutakoaren arabera (edo etorkizunean hori ordeztuko duen arauan).

*5. artikulua. Hasteko adina.*

1. Kirol modalitate edo diziplina bat hasteko gutxieneko adina haren ezaugarri espezifikoen araberakoa izango da, eta dagokion federazioarekin adostuko da.

b) Alevín: Territorio Histórico.

c) Infantil: Comunidad Autónoma.

d) Cadete: Supracomunitario.

2. La Diputación Foral de Gipuzkoa podrá autorizar, de forma excepcional, la organización o la participación en actividades en ámbitos superiores a los indicados, previo informe de la Comisión Vasca de Deporte Escolar, cuando las propias características de alguna modalidad deportiva así lo demanden. Estas autorizaciones forales se entienden sin perjuicio de las competencias de las federaciones vascas y del Gobierno Vasco en materia de selecciones autonómicas.

3. Las y los escolares que deseen participar en una unidad de iniciación deportiva deberán hacerlo en aquellas que estén ubicadas en su municipio de residencia o, en su caso, de escolarización.

En el supuesto de que en su municipio no exista unidad de iniciación deportiva de alguna de las modalidades objeto de esta regulación, lo harán en la del municipio más próximo al de su lugar de residencia o escolarización.

4. Dicho criterio será aplicable únicamente a los y las escolares de categorías benjamín y alevín que participen por primera vez en el club, dejando así un periodo transitorio para el cumplimiento del criterio acordado. Es decir, los y las escolares que en el curso 2023-24 estuvieran inscritos o inscritas en un club ajeno a su municipio de residencia o escolarización, quedan exentos del cumplimiento de este criterio.

En municipios de población superior a 50.000 habitantes se podrán establecer, en su caso, unos ámbitos territoriales inferiores, de común acuerdo entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y la administración deportiva municipal correspondiente.

5. En los casos debidamente acreditados (cambio de residencia o centro, motivos familiares de relevancia, mayor proximidad geográfica a una unidad de iniciación deportiva situada fuera del término municipal u otros análogos) la Dirección General de Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa podrá autorizar la participación en unidades que no estén ubicadas en su municipio de residencia o, en su caso, de escolarización.

En relación a la mayor proximidad geográfica, a pesar de que haya una instalación deportiva ubicada en el municipio de residencia o de escolarización del o la escolar, la Dirección General de Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa podrá autorizar a escolares la participación en unidades de iniciación deportiva que no estén ubicadas en su municipio de residencia o de escolarización, en el caso de que las instalaciones deportivas donde se desarrollan las actividades de enseñanza de una unidad de iniciación deportiva de un municipio colindante, se encuentren en un radio de hasta 2 kilómetros a la redonda de distancia del centro escolar o del domicilio del o la escolar.

6. Cada unidad de iniciación deportiva deberá desarrollar su actividad en las instalaciones deportivas de su municipio salvo que, circunstancias excepcionales, ello no sea posible, y se autorice expresamente por la Dirección General de Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

7. La superación de los ámbitos territoriales establecidos, sin la correspondiente autorización expresa, constituirá una infracción administrativa sancionable a la luz de lo dispuesto en el artículo 143.u de la Ley 2/2023, de 30 de marzo, de la actividad física y del deporte del País Vasco (o norma que en el futuro la sustituya).

*Artículo 5. Edad de iniciación.*

1. La edad mínima de iniciación a una modalidad o disciplina deportiva dependerá de las características específicas de la misma, siendo aquella consensuada con la federación correspondiente.

EK\CV GAO-I-2024-03254

2. Oro har, hasteko gutxieneko adina benjamin kategoriako lehen urtea izango da. Kategoria honetan sartzen dira programa amaitzen den urtean bederatzi urte beteko dituzten ikasleak.

3. Hala eta guztiz ere, ikasleak ingurunera egokitzen eta psikomotrizitatea garatzen laguntzeko egokitzat jotzen diren modalitateetan, benjamin kategoriako lehen urtearen aurretik hasi ahal izango dira. Hasteko adin hori inplikatutako eragileekin zehaztuko da. Nolanahi ere, hasteko gutxieneko adina ezingo da izan benjamin aurreko lehen urtekoa baino txikiagoa.

*6. artikulua. Bateraezintasunak. Gehieneko kopurua.*

1. Ikaslea, egiten duen kirol modalitate bakoitzeko, kirol hastapeneko unitate bakar batean inskribatuta egon ahal izango da, foru agindu bidez unitate batekoa baino gehiagokoa izan daitekeela arautzen den kasuetan izan ezik.

2. Gainera, ikasle bat ezin izango da modalitate bereko talde batean baino gehiagotan inskribatuta egon kirol hastapeneko unitate berean.

*7. artikulua. Aurretiazko baimena. Baldintzak.*

1. Ikasleentzako kirol hastapeneko unitateek, foru agindu honen xede direnek, aldez aurreko administrazio baimena beharko dute, Eusko Jaurlaritzak, hala badagokio, ezartzen dituen oinarri eta printzipio orokorren arabera, Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legearen 3.2.k artikuluan (edo etorkizunean hura ordeztuko duen arauan) jasotakoaren arabera.

2. Ikasleentzako kirol hastapeneko unitateak baimentzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Unitate horietan garatu beharreko jarduerak adin bakoitzaren ezaugarrietara egokituko dira.

b) Hastapeneko unitateek emakumeen parte hartzea bultzatuko dute, eta neskak eta mutilak kirol praktika desberdinetan sailkatzen dituzten genero estereotipoak hautsiko ditu.

c) Hastapeneko unitateek parte hartzaileen adinerako egokiak diren ekipoak eta materiala izango dituzte.

d) Hastapeneko unitateek errespetatu egingo dute gai horretan eskumena duten Gipuzkoako erakundeen artean kirol modalitate horretarako adostutako antolamendua.

e) Hastapeneko unitateek lehiaketa jarduera batzuk jaso ahal izango dituzte, baina eskola kiroleko programetan aurreikusitakoak ez diren hastapeneko unitateek ezin izango dute parte hartu beste erakunde batzuekiko lehiaketa erregularretan.

f) Kirol hastapeneko unitateko arduradunak jardueraren ezaugarrietarako egokia den kirol titulazioa izango du. Halaber, pertsona edo erakunde antolatzaileak kualifikazio tekniko egokia duten pertsonen kopuru nahikoa izango du, ikasleek jarduerak kalitate eta segurtasun baldintza egokietan egiten dituztela bermatzeko.

g) Erakunde antolatzaileek aseguru poliza bat izango dute, parte hartzaileek eta hirugarrenek jardueren garapenean izan ditzaketen kalte-galeren erantzukizun zibila estaltzeko.

h) Unitate horiek antolatzen dituzten erakundeek onarpen-baldintzak edo -irizpideak ezarri ahal izango dituzte, bai eta kirol jarduerak normaltasunez garatzeko arauak eta jarraibideak ere. Horiek guztiak jarduerak egin aurretik argitaratu beharko dituzte, interesdunek horien berri izan dezaten. Baldintza, arau eta jarraibide horien helburua jarduerak baldintza egokietan garatzen direla bermatzea izango da. Onarpen baldintzak ezin izango dira inola ere bereizkeria kausa bihurtu jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi edo beste edozein egoera pertsonal edo sozialengatik, eta ezingo dira modu arbitrarioan edo iraingarrian aplikatu.

2. Por norma general la edad mínima de iniciación será el primer año de la categoría benjamín. Pertenecen a esta categoría las y los escolares que vayan a cumplir 9 años el año de finalización del programa.

3. No obstante lo anterior, la edad de iniciación podrá ser anterior a la categoría de primer año benjamín en el caso de modalidades consideradas adecuadas para favorecer la adaptación al medio y el desarrollo psicomotor de los y las escolares. Tal edad de iniciación será fijada con los y las agentes implicadas. En cualquier caso, la edad mínima de iniciación no podrá ser inferior a la categoría de primer año prebenjamín.

*Artículo 6. Incompatibilidades. Número máximo.*

1. El o la escolar, por cada modalidad deportiva que practique, sólo podrá estar inscrito o inscrita en una unidad de iniciación deportiva, salvo que se autorice por orden foral que pueda pertenecer a más de una.

2. A su vez, un o una misma escolar no podrá estar inscrito o inscrita en más de un equipo o grupo de la misma modalidad en una misma unidad de iniciación deportiva.

*Artículo 7. Autorización previa. Requisitos.*

1. Las unidades de iniciación deportiva para escolares objeto de esta orden foral están sujetas, en todo caso a autorización administrativa previa conforme a las bases y principios generales que, en su caso, establezca el Gobierno Vasco, al amparo de lo previsto en el artículo 3.2.k de la Ley 2/2023, de 30 de marzo, de la actividad física y del deporte del País Vasco (o norma que en el futuro la sustituya).

2. La autorización de las unidades de iniciación deportiva para escolares estará sujeta al cumplimiento de los siguientes requisitos:

a) Las actividades por desarrollar en dichas unidades deberán adecuarse a las características propias de cada edad.

b) Las unidades de iniciación deberán impulsar la participación de mujeres y romper con los estereotipos de género que encasillan a mujeres y hombres en prácticas deportivas diferentes.

c) Las unidades de iniciación deberán contar con equipos y material adecuados a las edades de los y las participantes.

d) Las unidades de iniciación deberán ser respetuosas con la organización de dicha modalidad deportiva que se consensue entre las diversas instituciones guipuzcoanas competentes en la materia.

e) Las unidades de iniciación podrán incluir algunas actividades de competición, pero las unidades de iniciación distintas de las previstas en los programas de deporte escolar no podrán participar en competiciones regulares con otras entidades.

f) La responsable o el responsable técnico de la unidad de iniciación deportiva dispondrá de la titulación deportiva adecuada a las características de la actividad que se trate. Asimismo, la persona o entidad organizadora contará con un número suficiente de personas con la cualificación técnica adecuada a fin de garantizar que las y los escolares desarrollen las actividades en adecuadas condiciones de calidad y seguridad.

g) Las entidades organizadoras deberán contar con una póliza de seguro que cubra la responsabilidad civil por los daños y perjuicios que puedan sufrir los y las participantes y cualesquiera terceros en el desarrollo de las actividades.

h) Las entidades organizadoras de estas unidades podrán establecer requisitos o criterios de admisión, así como normas e instrucciones para el normal desarrollo de las actividades deportivas, que deberán publicar antes de la realización de las actividades para conocimiento general de las personas interesadas. Estos requisitos, normas e instrucciones tendrán como objetivo garantizar que las actividades se desarrollen en adecuadas condiciones. En ningún caso, los requisitos de admisión podrán convertirse en causa de discriminación por razón de nacimiento, raza, sexo, religión, opinión o cualquier otra condición o circunstancia personal o social, ni se podrán aplicar arbitraria o vejatoriamente.

EK\CV GAO-I-2024-03254

i) Erakunde antolatzaileek ikasleen adinari eta gainerako inguruabarrei eta kirol-modalitatearen edo -diziplinaren ezaugarriei ondoen egokitzen zaizkien baldintzetan egingo dituzte jarduerak.

j) Hastapeneko unitateak antolatzen dituzten erakundeek bermatu beharko dute beren jarduerak bateragarriak direla hezkuntza sistemak eskaintzen dituen irakaspenekin eta eskola kiroleko programaren jarduerekin.

Ildo horretan, eskola ikasleentzako kirol hastapeneko unitateek jarduera garatzen duten lekuko udalaren aldeko txostena beharko dute.

Txosten hori nahitaezkoa eta ez-loteslea da, eta azalduko du soilik jarduerak bateragarri ote diren hezkuntza sistemak eskaintzen dituen irakaskuntzekin eta dagokion eskola kirolaren programaren garapenarekin, eta behar bezala arrazoitu beharko du bateraezintasuna, halakorik egonez gero. Eskola kirolaren arloan eskumena duen udal organoak eman beharko du txostena, eskola kirolaren programan parte hartzen duten arloei entzun ondoren, eta gehienez ere 10 egun naturaleko epean. Txostena foru agindu honen eranskinean agertzen diren irizpideei eta ereduari egokituko zaie. Epe hori igaro eta txostenik eman ez bada, aldekoa dela ulertuko da.

k) Jarduerak garatzeko, eskola kirolaren araudia eta adingabeen babesaren eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan indarrean dagoen legeria errespetatuko dituzte erakunde antolatzaileek.

l) Jarduerak garatzen diren kirol instalazioek egokiak izan beharko dute, eta indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen higiene eta segurtasun baldintzak izan beharko dituzte jarduera garatzen den bitartean.

*8. artikulua. Eskola ikasleentzako kirol hastapeneko unitateen antolatzaileak.*

Honako hauek dira ikasleentzako kirol hastapeneko unitateak antolatzen dituzten erakundeak, foru agindu honen ondorioetarako: pertsona juridikoak, publikoak edo pribatuak, irabazi asmodunak edo irabazi asmorik gabeak, horiek garatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak jartzen dituztenak, berezkoak edo itunduak, jendearen aurrean erakunde antolatzaile gisa agertzen direnak eta Administrazioaren aldez aurreko baimena lortu dutenak, 7. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituztelako.

*9. artikulua. Baimen eskaerak aurkeztea.*

1. Baimen eskaerak eskura jarritako aplikazio telematikoaren bidez aurkeztu beharko dira, jarduerak hasi baino 15 egun lehenago gutxienez, Gipuzkoako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen zuzendaritzan.

2. Bi baimen mota daude:

a) Ikasleentzako kirol hastapenerako unitatea sortzekoak, lehen aldiz baimena eskatzen duten erakundeentzat.

b) Ikasleentzako kirol hastapeneko unitatea luzatzekoak, aurreko ikasturtean baimena lortu zuten erakundeentzat.

*10. artikulua. Eskabide orria eta agiriak.*

1. Baimena telematikoki eskatzeko eskabidearekin batera, erakunde eskatzaileak honako informazio eta agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

a) Erakundearen identifikazio agiriak.

b) Erakundearen ordezkaria.

c) Erakundearen harremanetarako pertsona eta helbidea.

d) Unitateko arduradun teknikoaren nortasuna, sexua eta titulazioa.

i) Las entidades organizadoras desarrollarán las actividades en las condiciones más adecuadas a la edad y demás circunstancias de los y las escolares y a las características de la modalidad o disciplina deportiva.

j) Las entidades organizadoras desarrollarán las actividades garantizando la compatibilidad de las mismas con las enseñanzas que ofrece el sistema educativo y con el desarrollo del correspondiente programa de deporte escolar.

En este sentido, las unidades de iniciación deportiva para escolares deberán contar con el informe favorable del Ayuntamiento donde se desarrolle la actividad.

El informe al que se refiere el apartado anterior, que tiene carácter preceptivo y no vinculante, versará exclusivamente sobre la compatibilidad de las actividades con las enseñanzas que ofrece el sistema educativo y con el desarrollo del correspondiente programa de deporte escolar, debiendo motivar suficientemente el informe la eventual incompatibilidad. El informe deberá ser emitido por el órgano municipal competente en materia de deporte escolar, oídas en su caso, las áreas involucradas en el programa de deporte escolar, en el plazo máximo de 10 días naturales y se ajustará a los criterios y al modelo que figuran como anexo de esta orden foral. Transcurrido este plazo sin que el informe se hubiese emitido se considerará que es favorable.

k) Las entidades organizadoras desarrollarán las actividades, respetando la normativa de deporte escolar y la legislación vigente en materia de protección de menores y de igualdad entre hombres y mujeres.

l) Las instalaciones deportivas donde se desarrollen las actividades deberán ser adecuadas y contar durante el desarrollo de la actividad con las condiciones higiénicas y de seguridad que se exigen en la legislación vigente.

*Artículo 8. Las entidades organizadoras de las unidades de iniciación deportiva para escolares.*

Son entidades organizadoras de las unidades de iniciación deportiva para escolares, a los efectos de esta orden foral, las personas jurídicas, públicas o privadas, con o sin ánimo de lucro, que aportan los recursos humanos y materiales necesarios, propios o concertados, para el desarrollo de las mismas y figuran como entidades organizadoras ante el público y hayan obtenido la autorización previa de la Administración, al cumplir los requisitos establecidos en el artículo 7.

*Artículo 9. Presentación de solicitudes de autorización.*

1. Las solicitudes de autorización deberán presentarse, mediante el aplicativo telemático puesto a disposición, ante la Dirección de la Diputación Foral de Gipuzkoa competente en materia deportiva con una antelación mínima de 15 días antes del comienzo de las actividades.

2. Existen dos tipos de autorización:

a) De creación de unidad de iniciación deportiva para escolares, para aquellas entidades que solicitan la autorización por primera vez;

b) De prórroga de unidad de iniciación deportiva para escolares, para aquellas entidades que ya obtuvieron la autorización el curso escolar anterior.

*Artículo 10. Instancia de la solicitud y documentación.*

1. Junto con la instancia de la solicitud telemática de autorización la entidad solicitante debe aportar la siguiente información y documentación:

a) Documentos identificativos de la entidad.

b) Representante de la entidad.

c) Persona y dirección de contacto de la entidad.

d) Identidad, sexo y titulación del o de la responsable técnico de la unidad.

EK\CV GAO-I-2024-03254

e) Gainerako teknikarien titulazioa. Indarrean dagoen araudiaren arabera, irakaskuntzako teknikariek titulazioa adierazi beharko dute baimen eskaeran, baina ez dute aurkeztu beharko. Hala ere, beharrezkoa bada, eskabidean adierazitako titulazioa egiaztatzeko eskatuko da.

f) Garatu gabeko kirol modalitatea eta diziplina.

g) Parte hartzen duten ikasleei eskatzen zaizkien baldintza ekonomikoak eta bestelakoak.

h) Erantzukizunpeko adierazpena, baimen eskaeran agertzen diren pertsona guztiek sexu delituen ziurtagiri negatiboa dutela adierazten duena.

i) Erakundearen adierazpena, ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoak, Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzkoak (LOPIVI gaztelaniaz) ezarritako baldintzak betetzeari buruzkoa.

2. Erakunde eskatzaileak honako dokumentazio tekniko hau ere aurkeztu beharko du:

a) Kirol proiektu teknikoa, helburuen, antolamenduaren eta funtzionamenduaren oinarrizko ildoak definituko dituena, egin beharreko kirol irakaskuntzako jarduera programaren ezaugarriak azalduko dituena, eta irakaskuntza-ikaskuntza etapa bakoitzean garatu beharreko helburuak, edukiak eta jarduerak jasoko dituena. Era berean, kirolean neska-mutilek berdintasunez parte hartzea sustatzen duten ekimenak edo neurriak sartuko dira.

b) Jarduerak egingo diren kirol instalazioak. Kirol instalazio bat baino gehiago erabiltzen bada, eta gainera titulartasuna erakunde bati baino gehiagori badagokio (aurrez hautatutakoaren arabera), instalazioaren titulartasun ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

c) Aurrekontua.

d) Jarduera garatu nahi den tokiko udalaren nahitaezko txostena, loteslea ez dena, aztertzeko jarduerak hezkuntza sistemak eskaintzen dituen irakaskuntzekin eta dagokion eskola kirolaren programaren garapenarekin bateragarriak diren. Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen zuzendaritzak eredu orientagarri bat emango die udalerriei.

e) Indarrean dagoen erantzukizun zibileko aseguru poliza eta urteko prima ordaindu izanaren agiriaren kopia.

3. Eskolako Kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuaren 26. artikuluaren arabera, honako hauek izango dira ikasleentzako kirol hastapeneko unitateen erantzukizun zibileko aseguruaren mugak eta frankiziak:

a) Mugak:

— Gorputzeko kalteak eta kalte moralak: 125.000 euro biktima bakoitzeko; gehienez ere 375.000 euro ezbehar bakoitzeko.

— Kalte materialak: 100.000 euro ezbehar bakoitzeko.

b) Frankiziak edo salbuetsitako minimoa: eska daitekeen zenbatekoaren 1.000ko 1; salbuetsitako minimoa ez da inola ere 12.000 eurotik gorakoa izango.

*11. artikulua. Beste betebehar administratibo batzuk.*

1. Baimena lortu ondoren, erakunde antolatzaileek hastapeneko unitatean parte hartzen duten ikasle guztiak inskribatu beharko dituzte eskola kirolaren aplikazio informatikoan, Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero horretarako ezartzen duen epean.

2. Inskripzioa egitean, unitateetan parte hartzen duten ikasleen izen-abizenak, jaioteguna, sexua eta ikastetxea adieraziko dira, bai eta teknikari arduradunen beharrezko gaitasunak egiaztatzeko datuak ere.

3. Parte hartzen duten ikasleek izena epe barruan ematen ez badute, baimena baliogabetu ahal izango da.

e) Titulación del resto de personal técnico. El personal técnico docente deberá indicar, pero no presentar, la titulación en la solicitud de autorización de acuerdo con la normativa vigente, aunque si se precisa necesario, se solicitará la acreditación de la titulación que se ha indicado en la solicitud.

f) Modalidad deportiva y disciplina por desarrollar.

g) Condiciones económicas y de otra naturaleza exigidas a las y los escolares participantes.

h) Declaración responsable respecto a la posesión de la certificación negativa de delitos de naturaleza sexual de todas las personas que figuran en la solicitud de autorización.

i) Declaración de la entidad respecto al cumplimiento de los requisitos marcados por la Ley Orgánica 8/2021, de 4 de junio, de protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia (LOPIVI).

2. Asimismo, la entidad solicitante deberá aportar la siguiente documentación técnica:

a) Proyecto técnico-deportivo en el que se definan las líneas básicas de sus objetivos, organización y funcionamiento, con exposición de las características del programa de actividades de enseñanza deportiva a realizar, que incluirá los objetivos, contenidos y actividades a desarrollar en las diferentes etapas de enseñanza-aprendizaje. Asimismo, se incluirán iniciativas o medidas que fomenten la participación igualitaria de niñas y niños en el deporte.

b) Instalaciones deportivas en las que se van a desarrollar las actividades. En el caso de que se utilice más de una instalación deportiva, y además la titularidad corresponda a más de una entidad (según lo seleccionado previamente), deberán aportarse los correspondientes certificados de titularidad de instalación.

c) Presupuesto.

d) Informe preceptivo y no vinculante del Ayuntamiento donde se quiera desarrollar la actividad sobre la compatibilidad de las actividades con las enseñanzas que ofrece el sistema educativo y con el desarrollo del correspondiente programa de deporte escolar, para lo cual, la Dirección de la Diputación Foral de Gipuzkoa que tenga atribuida la competencia en materia deportiva facilitará un modelo orientativo a los municipios.

e) Póliza del seguro de responsabilidad civil en vigor y copia del recibo de abono de la prima anual.

3. Los límites y franquicias del seguro de responsabilidad civil de las unidades de iniciación deportiva para escolares serán las siguientes, según el artículo 26 del Decreto 125/2008, de 1 de julio, sobre Deporte Escolar:

a) Límites:

— Daños corporales y morales: 125.000 euros por víctima con un límite máximo de 375.000 euros por siniestro.

— Daños materiales: 100.000 euros por siniestro.

b) Franquicias o mínimo exento: 1 por 1.000 de la cuantía que resulte exigible sin que en ningún caso dicho mínimo exento pueda superar la cantidad de 12.000 euros.

*Artículo 11. Otras obligaciones administrativas.*

1. Una vez obtenida la autorización, las entidades organizadoras deberán inscribir a todos y todas las escolares participantes en la unidad de iniciación en la aplicación informática de deporte escolar, en el plazo que la Diputación Foral de Gipuzkoa establece anualmente.

2. Al realizar la inscripción se consignarán los nombres y apellidos, fecha de nacimiento, sexo y centro escolar de los y las escolares participantes en las unidades, así como de los datos para la acreditación de las competencias necesarias del personal técnico responsable.

3. La no inscripción de los y las escolares participantes en plazo podrá suponer la revocación de la autorización.

EK\CV GAO-I-2024-03254

*12. artikulua. Isiltasun administratiboa.*

1. Gipuzkoako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen zuzendaritzak hiru hilabeteko epea du eskabidearen ebazpena ebatzi eta jakinarazteko; epe barruan ebatzi ezean, baimena eman dela ulertuko da.

2. Baimen eskaerak ez baditu betetzen adierazitako baldintzak edo eskaeraren alderdiren bat zehaztasun handiagoz argitu edo justifikatu behar bada, eskabidea aurkeztu duenari eskatuko zaio hamar egun baliodun eko epean akatsa zuzentzeko edo dokumentuak eransteko edo, bestela, errekerimenduan adierazitakoak zabaltzeko edo argitzeko, eta ohartaraziko zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela aldez aurretik ebazpena emanda, hala arautzen baitu 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Herri Administrazioen Prozedura Administratibo Erkideari buruzkoak, 21. artikuluan.

3. Zuzentzeko epean eta/edo hobetzeko eta zabaltzeko edo argitzeko epean zehar, eten egingo da eskaera ebazteko epea.

4. Epeak zenbatzeari dagokionez, epeak ere automatikoki etengo dira, interesdunari edozein jakinarazpen bidaltzen zaionean egoitza elektronikoan.

*13. artikulua. Baimenak, lizentziak, komunikazioak eta indarrean dagoen araudian ezarritako gainerako baldintzak.*

1. Foru agindu honetan araututako baimena lortzeak ez die kalterik egingo beste administrazio publiko batzuek eskatutako baimen, lizentzia, komunikazio eta gainerako betekizunei.

2. Erakunde antolatzaileak bermatu beharko du betetzen direla –Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 1071982 Oinarrizko Legean eta Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko 6/2003 Legean ezarritakoaren arabera– zerbitzu emaile izango diren hastapeneko unitateetan parte hartuko duten erabiltzaileen hizkuntza eskubideak; era berean, progresibitate printzipioari jarraikiz, euskara sustatzeko neurriak hartu ahal izango dira.

*14. artikulua. Eskaerak ebaztea.*

1. Eskola ikasleentzako kirol hastapeneko unitateak garatzeko baimen eskaerak aztertu eta ebaztea Gipuzkoako Foru Aldundian kirol arloan eskumena duen zuzendaritzari dagokio, salbu eta kirol arloan eskumena duen foru departamentuaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko foru dekretuak besterik ezartzen badu.

2. Baimena emateko ebazpenean jasotako baldintzak betetzen ez badira, baimena baliogabetu ahal izango da.

3. Erakunde onuradunek egiten duten publizitatean edo informazioan aipatuko dute Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimena dutela jarduera hori antolatzeko.

*15. artikulua. Baimenen iraupena.*

1. Emandako baimen espezifikoak dagokion ikasturterako balioko du, ikasturte hori irailaren 1etik abuztuaren 31ra bitarteko aldia dela ulertuta, eta azken data horretan iraungiko da. Administrazio isiltasunez lortutako baimenaren indarraldia hura lortu den ikasturtea amaitzean amaituko da.

2. Baimenaren luzapena eskatzeko, telematikoki aurkeztu beharko da, kirol arloko Zuzendaritzak horretarako ezarritako epean, 10. artikuluan adierazitako informazioa –kirol proiektu teknikoa izan ezik–, baldin eta horretan aldaketarik izan ez bada.

3. Baimena lortu ondoren, hasiera batean aurkeztutakoari egin nahi zaion edozein aldaketa –zerikusia badu parte hartzaileekin, teknikariekin, ordutegiekin, datekin eta jarduerak egiteko

*Artículo 12. Silencio administrativo.*

1. La Dirección de la Diputación Foral de Gipuzkoa competente en materia deportiva dispone del plazo de tres meses para resolver y notificar la resolución de la solicitud; caso de no hacerlo en plazo se considerará otorgada la autorización.

2. Si la solicitud de autorización no reuniese los requisitos señalados o alguno de sus extremos necesitase ser aclarado o justificado con mayor precisión, se requerirá a quién la hubiese presentado para que, en un plazo de diez días hábiles, subsane la falta o acompañe los documentos o amplíe o aclare los extremos indicados en el requerimiento, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 21 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre del procedimiento administrativo común de las administraciones públicas.

3. Durante el plazo de subsanación y/o mejora-ampliación o aclaración quedará suspendido el plazo para resolver la solicitud.

4. A los efectos de cómputo de plazos, la suspensión de plazos también se producirá automáticamente, desde la puesta a disposición del interesado en la sede electrónica de cualquier notificación que se le dirija.

*Artículo 13. Autorizaciones, licencias, comunicaciones y demás requisitos establecidos en la normativa vigente.*

1. La obtención de la autorización regulada en esta orden foral se entiende sin perjuicio de las autorizaciones, licencias, comunicaciones y demás requisitos que sean exigidos por otras administraciones públicas.

2. La entidad organizadora deberá garantizar según lo establecido en la Ley 1071982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera y en la Ley 6/2003, del Estatuto de las Personas Consumidoras y Usuarias, lo relativo a los derechos lingüísticos de las y los usuarios que participen en las unidades de iniciación de los que van a ser prestadores de servicios y, asimismo, siguiendo el principio de progresividad, se podrán adoptar medidas para fomentar el euskera.

*Artículo 14. Resolución de las solicitudes.*

1. El conocimiento y resolución de las solicitudes de autorización para el desarrollo de las unidades de iniciación deportiva para escolares corresponde a la Dirección competente en materia deportiva de la Diputación Foral de Gipuzkoa, salvo que el decreto foral de estructura orgánica y funcional del Departamento Foral que tenga atribuida la competencia en materia de deportes establezca otra cosa.

2. El incumplimiento de las condiciones recogidas en la resolución de otorgamiento de la autorización podrá dar lugar a su revocación.

3. Las entidades beneficiarias mencionarán en la publicidad o información que realicen de las mismas que cuentan con la autorización de la Diputación Foral de Gipuzkoa para organizar dicha actividad.

*Artículo 15. Duración de las autorizaciones.*

1. La autorización específica otorgada tendrá validez para el curso escolar correspondiente, entendiendo éste como el periodo comprendido entre el 1 de septiembre y el 31 de agosto, caducando en esta última fecha. La vigencia de la autorización obtenida por silencio administrativo finalizará al concluir el curso escolar en que se hubiere obtenido.

2. Para solicitar la prórroga de la autorización habrá que presentar de forma telemática en el plazo establecido por la Dirección en materia deportiva la información indicada en el artículo 10, excepto el proyecto técnico-deportivo, en caso de que ésta no haya sufrido modificación alguna.

3. Una vez lograda la autorización, cualquier modificación relativa a los y las participantes, personal técnico, horarios, fechas y lugar de realización de las actividades, respecto a las presenta-

EK\CV GAO-I-2024-03254

lekuarekin–, jakinarazi egin beharko da, eta berariaz baimendu beharko du kirol arloan eskumena duen Gipuzkoako Foru Aldundiko Zuzendaritzak, baimen osagarriaren bidez, zeinak baimenaren balio epea ezarriko baitu. Aldaketak ez badie eragiten zehaztutako gai horiei, nahikoa izango da Gipuzkoako Foru Aldundiko Zuzendaritzari berariaz jakinaraztea.

*16. artikulua. Jardueren garapena etetea. Ikuskaritza.*

1. Gipuzkoako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen zuzendaritzak jakiten badu eskola ikasleentzako kirol hastapeneko unitateak garatzen ari direla behar den baimenik gabe, baimenean ezarritako baldintzetatik aldenduz edo indarrean dagoen araudia urratuz, jarduera berehala etetea eta emandako baimena ezeztatzea erabaki ahal izango du behin-behinean, dagokion zehapen espedientea hastea alde batera utzi gabe.

2. Zuzendaritza horrek, berariaz gaitutako pertsonen bitartez, ikuskapen eginkizunak beteko ditu, emandako baimenei eta aplikatu beharreko gainerako legeriari dagokienez foru agindu hau betetzen dela kontrolatzeko.

3. Arduradunek, antolatzaileek edo langileek ikuskatzaileei ez laguntzea edo horien lana oztopatzea arau hauste administratibo bat izango da, baldin eta horrek ikuskapena egiten den unean ikuskapen hori erabat egin ezin izatea badakar, eta zehagarria izango da, Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legearen (edo etorkizunean hura ordeztuko duen arauaren) 143.n artikuluan xedatutakoaren arabera.

*17. artikulua. Zehapen araubidea.*

Foru agindu honetan jasotako xedapenak ez betetzea arau hauste larria izango da, Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legearen 143.u artikuluan (edo etorkizunean hori ordeztuko duen arauan) xedatutakoaren arabera, eta bertan aurreikusitako zehapenen araubidea aplikatuko da.

*18. artikulua. Errekurtsoak.*

Kirol arloan eskumena duen Gipuzkoako Foru Aldundiko zuzendaritzaren ebazpenen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio kirol arloan eskumena duen foru departamentuko foru diputatuari.

*19. artikulua. Aurretiazko kontsultak.*

Foru agindu honen xede diren eskola ikasleentzako kirol hastapeneko unitateak abian jarri nahi dituzten erakunde antolatzaileek aldez aurreko kontsulta bat egin ahal izango dute, eta kirol arloan eskumena duen zuzendaritzaren txosten baten bidez erantzungo zaie, proiektuaren edo ideiaren bideragarritasuna azter dadin, hala badagokio, baimen eskaera aurkeztu aurretik.

III. KAPITULUA

SASKIBALOI, ESKUBALOI, FUTBOL ETA ERRUGBI MODALITATEETAKO KIROL HASTAPENEKO UNITATEEN ARAUBIDE ESPEZIFIKOA

*20. artikulua. Xedea.*

III. kapitulu honen xedea da Gipuzkoako Lurralde Historikoan eskola ikasleentzako kirol hastapeneko unitateen araubide espezifikoa arautzea, saskibaloi, eskubaloi, futbol eta errugbi modalitateetan.

das inicialmente, deberá ser notificada y autorizada expresamente, mediante autorización complementaria, por la Dirección de la Diputación Foral de Gipuzkoa competente en materia deportiva. La autorización complementaria establecerá el plazo de validez de la misma. Si la modificación no afecta a estas cuestiones detalladas, bastará con su comunicación expresa a la Dirección de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

*Artículo 16. Suspensión del desarrollo de las actividades. Inspección.*

1. En el supuesto de que la Dirección de la Diputación Foral de Gipuzkoa competente en materia deportiva tuviera conocimiento de que se están desarrollando unidades de iniciación deportiva para escolares, sin la debida autorización o apartándose de las condiciones establecidas en la misma o contraviniendo la normativa vigente podrá acordar provisionalmente, sin perjuicio de la incoación del correspondiente expediente sancionador, la suspensión inmediata de su actividad y la revocación de la autorización otorgada.

2. La citada Dirección, a través de las personas habilitadas expresamente, ejercerá funciones de inspección al objeto de controlar el cumplimiento de la presente orden foral, de las autorizaciones otorgadas y del cumplimiento del resto de legislación aplicable.

3. La mera falta de colaboración con los y las inspectoras o el entorpecimiento de su labor, por parte del personal responsable, organizador o personal que en el momento de desarrollarse la inspección implique o suponga que no pueda llevarse a cabo completamente dicha inspección constituirá una infracción administrativa sancionable a la luz de lo dispuesto en el artículo 143.n de la Ley 2/2023, de 30 de marzo, de la actividad física y del deporte del País Vasco (o norma que en el futuro la sustituya).

*Artículo 17. Régimen sancionador.*

El incumplimiento de las disposiciones contenidas en la presente orden foral constituirá, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 143.u de la Ley 2/2023, de 30 de marzo, de la actividad física y del deporte del País Vasco (o norma que en el futuro la sustituya), una infracción grave y resultará de aplicación el régimen de sanciones previsto en la misma.

*Artículo 18. Recursos.*

Contra las resoluciones de la Dirección de la Diputación Foral de Gipuzkoa competente en materia deportiva podrá interponerse recurso de alzada ante el diputado o diputada foral del Departamento Foral competente en materia de deportes.

*Artículo 19. Consultas previas.*

Las entidades organizadoras que proyecten poner en marcha unidades de iniciación deportiva para escolares que son objeto de esta orden foral, podrán formular una consulta previa, que será contestada mediante informe de la Dirección competente en materia deportiva, al objeto de que se examine la viabilidad del proyecto o idea antes de presentar, en su caso, la solicitud de autorización.

CAPÍTULO III

DEL RÉGIMEN ESPECÍFICO DE LAS UNIDADES DE INICIACIÓN DEPORTIVA DE LAS MODALIDADES DE BALONCESTO, BALONMANO, FÚTBOL Y RUGBY

*Artículo 20. Objeto.*

Es objeto de este Capítulo III la regulación del régimen específico en el Territorio Histórico de Gipuzkoa de las unidades de iniciación deportiva para escolares en las modalidades de baloncesto, balonmano, fútbol y rugby.

EK\CV GAO-I-2024-03254

*21. artikulua. Eskola ikasleentzako kirol hastapeneko unitateen antolatzaileak baimentzeko araubidea.*

Saskibaloi, eskubaloi, futbol eta errugbiko hastapeneko unitateak antolatzen dituzten erakundeentzako baimen araubideak foru agindu honen II. kapituluan araututakoa errespetatu beharko du oso osorik.

*22. artikulua. Hasteko adina.*

Jarduera horietan hasteko adina benjamin kategoriako lehen urtekoa izango da. Foru agindu honetan arautzen diren modalitateetan, ezingo da kategoria txikiagoko jarduerarik antolatu.

*23. artikulua. Kategoriak.*

Hastapen unitateetako irakaskuntza jardueretan benjamin eta alebin kategoriako edozein ikaslek har dezake parte, eta ezin izango da inolako hautaketa edo diskriminaziorik ezarri ezein jardueratan.

*24. artikulua. Irakaspen jardueren osagarritasuna.*

1. Kirol hastapeneko unitateen irakaskuntza jarduerak osagarriak izango dira, eta ez dira eskola kirola antolatzeko esparru orokorrean egiten diren jardueren ordezkoak izango. Beraz, eskola kiroleko programetan parte hartzeko lehiaketak izeneko jarduerekin koordinatuta programatuko dira.

2. Ondorioz, kirol hastapeneko praktika egokia bermatzeko, eta hastapeneko unitate batean parte hartzeko, ezinbestekoa izango da indarrean dagoen ikasturterako ikasleen ikastetxean antolatutako eta garatutako kirol anitzeko eskaintza nagusian izena emanda egotea eta modu jarraituan parte hartzea.

3. Ikastetxean eskola kirolaren eskaintza nagusi hori ez badago, interesa duten ikasleek beren udalerritik hurbil dagoen beste ikastetxe bateko eskola kiroleko programan parte hartu beharko dute, eta udalerrian bertan kirol modalitate horretan parte hartzen duen ikastetxerik ez badago, bizi diren udalerritik hurbil dagoen beste ikastetxe batean parte hartu beharko dute. Salbuespen gisa, Gipuzkoako Foru Aldundiak baimena eman ahal izango du kirol hastapeneko unitate batean esklusiboki parte hartzeko, ikasleen kirol hastapeneko praktika egokia bermatzen den kasuetan.

4. Foru agindu honetan aipatzen diren kirol kolektiboen kasuan, Gipuzkoako Foru Aldundiak programatuta eta aipatutako modalitateetako kirol federazioekin adostuta dituen kirol modalitateetan hasteak bermatu beharko du ikasleek kirol anitzeko hastapenak egiten dituztela, horrela modalitate horiek (trebetasun irekiak) praktikatzeko berezko trebetasun motorrak modu orekatuan gara daitezen, eta horrek dakartzan arriskuak saihets daitezen.

5. Txikiak direnean, hau da, benjamin eta alebin kategorietan, talde kiroletan hasten direnean, kirol mota horretako zenbait modalitate egin beharko dituzte, hori lagungarri baita neska-mutilen gaitasun motorra aberasteko, eta guztien alderdi komunen transferentzia eta sustapena errazteko; izan ere, infantil kategorian daudenean, talde kirol horietako batean espezializatzen dira.

6. Antolamendu testuinguru horretan, modalitate horietako kirol hastapeneko unitateetan garatutako irakaskuntza jarduerek jarduera nagusia indartzeko izaera izan beharko dute.

7. Foru agindu honek arautzen dituen modalitateetako kirol hastapeneko unitateak antolatzen dituzten erakundeek beren jarduera garatuko duten udalerriaren adostasuna izan beharko dute, aldeko txostenaren bidez. Eskola kirolaren arloan eskumena duen udal organoak eman beharko du txostena, eskola kirolaren

*Artículo 21. Régimen de autorización para las entidades organizadoras de las unidades de iniciación.*

El régimen de autorización para las entidades organizadoras de las unidades de iniciación de las modalidades de baloncesto, balonmano, fútbol y rugby deberá respetar íntegramente lo regulado en el Capítulo II de esta orden foral.

*Artículo 22. Edad de iniciación.*

La edad de iniciación para estas actividades será el primer año de categoría benjamín. En las modalidades que quedan reguladas en esta orden foral no se podrán organizar actividades en categorías menores.

*Artículo 23. Categorías.*

Las actividades de enseñanza de las diferentes unidades de iniciación estarán abiertas a la participación de cualquier escolar de categoría benjamín y alevín, no pudiendo establecerse ningún tipo de selección o discriminación en ninguna de sus actividades.

*Artículo 24. Complementariedad de las actividades de enseñanza.*

1. Las actividades de enseñanza de las diferentes unidades de iniciación deportiva serán complementarias y no sustitutivas de las que se lleven a cabo en el marco general de organización del deporte escolar y, por tanto, se programarán de forma coordinada con las actividades denominadas competiciones de participación de los programas de deporte escolar.

2. En consecuencia, para garantizar una práctica de iniciación deportiva adecuada, y participar en una unidad de iniciación será requisito indispensable, estar inscrito o inscrita y participar de manera continuada en la oferta principal polideportiva organizada y desarrollada en el seno del centro escolar de los y las escolares para el curso escolar vigente.

3. En el caso de inexistencia de dicha oferta principal de deporte escolar en el centro escolar propio, el alumnado interesado deberá participar en el programa de deporte escolar de otro centro escolar próximo a su domicilio en su propio municipio, y en caso de inexistencia de centros que participen en esa modalidad deportiva en su propio municipio, en otro centro próximo geográficamente al municipio donde resida. Excepcionalmente, la Diputación Foral de Gipuzkoa podrá autorizar la participación exclusiva en una unidad de iniciación deportiva en los casos en los que se garantice una práctica de iniciación deportiva adecuada de los y las escolares.

4. En el caso de los deportes colectivos a los que se refiere la presente orden foral, la iniciación a dichas modalidades deportivas, programadas por parte de la Diputación Foral de Gipuzkoa, acordadas con las federaciones deportivas de las modalidades mencionadas, deberá garantizar que la población escolar realice una iniciación polideportiva, de modo que el desarrollo de las habilidades motrices inherentes a la práctica de estas modalidades (habilidades abiertas) se produzca de forma equilibrada, evitando los riesgos derivados de una especialización precoz.

5. En las edades iniciales, esto es, las correspondientes a las categorías benjamín y alevín, la iniciación a los deportes colectivos incluirá la práctica de varias modalidades, a fin de contribuir al enriquecimiento motor de los y las practicantes y de facilitar la transferencia y el refuerzo de los aspectos comunes a todas ellas, en tanto que la especialización en uno solo de estos deportes colectivos se contempla en la categoría infantil.

6. En este contexto de ordenación, las actividades de enseñanza desarrolladas en las unidades de iniciación deportiva de estas modalidades deberán tener el carácter de refuerzo de la actividad principal.

7. Las entidades organizadoras de las unidades de iniciación deportiva de las modalidades que regula esta orden foral deberán contar con la conformidad, a través de informe favorable, del municipio en el que tengan previsto desarrollar su actividad. El informe deberá ser emitido por el órgano municipal competente

EK\CV GAO-I-2024-03254

programan parte hartzen duten arloei entzun ondoren, hala badagokio. Txostena nahitaezkoa izango da, baina ez loteslea.

*25. artikulua. Hastapeneko unitateetako parte hartzaileak eskola kirolaren aplikazioan inskribatzea.*

1. Baimena lortu ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak xede horretarako urtero ezartzen duen ohiko epean, baimendutako hastapeneko unitateak antolatzen dituzten erakundeek horretarako gaitutako eskola kiroleko aplikazioan inskribatu beharko dituzte parte hartzen duten ikasleak.

2. Horretarako, parte hartzen duten ikasleek, aldez aurretik, dagokion ikastetxean antolatu eta garatutako eskola kirolaren kirol eskaintza nagusian izena emanda egon beharko dute, III. kapitulu honen 24. artikuluan adierazten den moduan.

3. Eskola kiroleko programa horretan inskribatuta ez dagoela egiaztatzen bada, ikasleak hastapeneko unitatean baja emateko izapideak egingo dira, ikastetxearen eta hastapeneko unitatearen erakunde antolatzaileari aldez aurretik jakinarazita. Azken horiei 10 eguneko entzunaldia emango zaie, egokitzat jotzen dutena alega dezaten.

4. Gipuzkoako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen zuzendaritzako arduradunaren ebazpenaren bidez emango zaio baja parte hartzaileari.

*26. artikulua. Bateraezintasunak.*

1. Foru agindu honen II. kapituluko 6. artikuluan ezarritakoaren arabera, kirol modalitate bakoitzeko hastapeneko unitate bakar batean parte hartu ahal izango da. Ikasle bakoitzak honako hauetan parte hartu ahal izango du gehienez:

a) Talde batean.

b) Modalitate desberdinetako bi hastapeneko unitatetan.

2. Hala ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak berariazko baimenak eman ahal izango ditu futbol hastapeneko unitate batean izena emanda dauden zenbait ikaslek parte hartu ahal izan dezaten areto futboleko hastapeneko beste unitate batean, udalerri jakin batzuetan kirol diziplina minoritarioa gara dadin bultzatzeko, baldin eta prestakuntza integral orekatuari dagokionez adingabearen interesa bermatzen bada.

*27. artikulua. Aldiak.*

Jarduerak egiteko aldi hauek bereizten dira:

a) Eskola aldia: Foru agindu honen ondorioetarako, eskola aldia urriaren 1etik ekainaren 15era bitartekoa izango da. Eguberrietako eta Aste Santuko oporraldiak aldi horretan sartzen dira.

b) Eskola gabeko aldia: ekainaren 16tik abuztuaren 31ra.

*28. artikulua. Jarduera motak.*

Aldi bakoitzean, baimendutako hastapeneko unitateek honako jarduera hauek egin ahal izango dituzte:

a) Irakaskuntza saioak: Hastapeneko unitateen ohiko jarduerak izango dira (asteko entrenamenduak).

b) Hastapeneko unitateen arteko jardunaldiak edo topaketak: eskola orduetan egingo dira, Gipuzkoako Foru Aldundiak horretarako ezartzen dituen egunetan.

c) Hastapeneko unitateen arteko lehiaketak:

i) Saio horiek Gipuzkoako Foru Aldundiak programatuko ditu, dagokion kirol federazioarekin lankidetzan, edo, bestela, txapelketa puntualak izango dira eta horietara txapelketetara hiru hastapeneko unitate edo gehiago joan ahal izango dira. Txapelketak gehienez ere bi egunekoak izango dira, eta oporraldian bakarrik egingo dira.

en materia de deporte escolar, oídas en su caso, las áreas involucradas en el programa de deporte escolar. El informe será preceptivo pero no vinculante.

*Artículo 25. Inscripción de participantes de las unidades de iniciación en la aplicación de deporte escolar.*

1. Una vez obtenida la autorización, en el plazo ordinario que la Diputación Foral de Gipuzkoa establezca anualmente con este fin, las entidades organizadoras de las unidades de iniciación autorizadas deberán inscribir a los y las escolares participantes en la aplicación de deporte escolar habilitada al efecto.

2. A tal fin, previamente, los y las escolares participantes deberán constar inscritos e inscritas en la oferta principal polideportiva de deporte escolar organizada y desarrollada en el seno del centro escolar correspondiente, tal y como se indica en el artículo 24 de este Capítulo III.

3. En caso de constatar que no figura inscrito o inscrita en dicho programa de deporte escolar, se procederá a tramitar la baja del o de la escolar en la unidad de iniciación, previa comunicación al centro escolar del o de la escolar y a la entidad organizadora de la unidad de iniciación, a los que se concederá un plazo de audiencia de 10 días para que puedan alegar lo que estimen oportuno.

4. La baja de un o una participante se realizará por resolución de la persona encargada de la Dirección competente en materia deportiva de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

*Artículo 26. Incompatibilidades.*

1. De conformidad con lo establecido en el artículo 6 del Capítulo II de esta Orden Foral, sólo se podrá participar en una unidad de iniciación por cada modalidad deportiva. Y cada escolar como máximo podrá participar:

a) En un equipo o grupo.

b) En dos unidades de iniciación de modalidades diferentes.

2. La Diputación Foral de Gipuzkoa podrá, no obstante, emitir autorizaciones expresas para permitir la participación de determinados escolares inscritos o inscritas en una unidad de iniciación de fútbol en otra unidad de iniciación de fútbol sala, con el fin de impulsar el desarrollo de la disciplina deportiva minoritaria en determinados municipios, siempre que se garantice el interés del y de la menor en relación a una formación integral equilibrada.

*Artículo 27. Períodos.*

Se diferencian los siguientes períodos para realizar las actividades:

a) Período lectivo: A los efectos de esta orden foral se entenderá por período lectivo el comprendido entre el 1 de octubre y al 15 de junio. En dicho período quedan comprendidos los períodos vacacionales de Navidad y Semana Santa.

b) Periodo no lectivo: Del 16 de junio al 31 de agosto.

*Artículo 28. Tipos de actividades.*

En cada uno de los períodos las unidades de iniciación autorizadas podrán realizar las siguientes actividades:

a) Sesiones de enseñanza: Serán las actividades habituales de las unidades de iniciación (entrenamientos semanales).

b) Jornadas o encuentros entre unidades de iniciación: Se realizarán en periodo lectivo, en las fechas que la Diputación Foral de Gipuzkoa establezca para ello.

c) Sesiones de competición entre unidades de iniciación:

i) Estas consistirán bien en encuentros programados por la Diputación Foral de Gipuzkoa con la colaboración de la federación deportiva correspondiente, o bien en torneos puntuales, a los que podrán asistir tres o más unidades de iniciación y que no tendrán una duración superior a dos días, y que se desarrollan exclusivamente en periodo vacacional.

EK\CV GAO-I-2024-03254

ii) Hastapeneko unitate bakoitzak ezin izango du oporraldi bakoitzeko txapelketa bat baino gehiago antolatu, ezta horietako batean baino gehiagotan parte hartu ere.

iii) Jardunaldiak edo topaketak eta lehiaketak antolatzeko edo horietan parte hartzeko, eskola kiroleko programetan sartuta ez dauden lehiaketak baimentzeko araubide orokorra bete beharko da; beraz, baimen hori modu telematikoan eskatu beharko da, gutxienez lehiaketa egin baino 15 egun lehenago.

*29. artikulua. Jarduera kopuruari buruzko irizpide orokorrak.*

1. Eskola aldiko irizpide orokorrak (urriaren 1etik ekainaren 15era) honako hauek izango dira:

a) Irakaskuntza saioak: Astero irakaskuntza saio bat egin ahal izango da.

b) Hastapeneko unitateen arteko jardunaldiak edo topaketak: Hilean behin jardunaldi edo topaketa bakarra egin ahal izango da Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta dagokion federazioaren artean adostutako egutegiaren barruan; beraz, guztira bederatzi topaketa izango dira eskola aldian. Egutegi hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren web orrian argitaratuko da, ikasturtearen hasieran.

c) Eguberrietako eta Aste Santuko eskola oporretan, salbuespen gisa, astean bi irakaskuntza saio edo, bestela, irakaskuntza saio bat eta aldez aurretik eratutako hastapeneko unitateen arteko jardunaldi edo topaketa bat egin ahal izango dira. Halaber, lehiaketa saioak edo txapelketak baimendu ahal izango dira, aurreko artikuluan adierazitako moduan eta bertan adierazitako mugekin.

d) Hastapeneko unitateen arteko topaketetan adostutako egutegitik kanpo parte hartzeko edo horiek antolatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren berariazko eta aurretiazko baimena beharko da.

2. Eskola gabeko aldirako irizpide orokorrak (ekainaren 16tik abuztuaren 31ra) honako hauek izango dira: Hamar asteko aldi horretan, gehienez ere hogei irakaskuntza saio eta hamar jardunaldi edo topaketa egin ahal izango dira (astean hiru saio), edozein dela ere denboran duten banaketa, jarraitua edo etena, egokitzat jotzen diren edukiekin, modalitate bakoitzerako ezartzen diren irizpide teknikoen arabera, II. eranskinean jasota bezala.

*30. artikulua. Hastapeneko unitateak baimentzeko baldintza teknikoak eta antolakuntzakoak.*

1. Antolamenduari dagokionez:

Irakaskuntza saioak udalerriko udalarekin adosten diren egunetan egingo dira, eta Gipuzkoako Foru Aldundiari baimen eskaeran emango zaio aurreikusitako egutegiaren berri. Eskabidean adierazitako egun, ordu eta tokiei buruzko edozein aldaketa Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinarazi beharko zaio, dagokion udalak baimena eman ondoren. Betebehar hori ez betetzea arau hauste administratiboa izango da, eta Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legearen 143.u artikuluan tipifikatuta dago (edo etorkizunean hura ordeztuko duen arauan).

2. Instalazioak eta materiala:

a) Hastapeneko unitatean parte hartzen duen ikasle bakoitzeko, gutxienez baloi bat izan beharko dute.

b) Material osagarria (piboteak, txinoak, uztaiak, petoak, baloi astunak, makilak...) ikasleen adin eta inguruabarretara eta kirol modalitatearen ezaugarrietara egokituko dira.

c) Areto futboleko, eskubaloiko eta saskibaloiko hastapeneko unitateak zoladura elastikoa eta ez urratzailea duten esparru itxietan egingo dira.

ii) Cada unidad de iniciación no podrá organizar ni participar en más de un torneo por cada período vacacional.

iii) La organización o participación en jornadas o encuentros y sesiones de competición estará sujeta al régimen general de autorización de competiciones no incluidas en los programas de deporte escolar, por lo cual su autorización expresa deberá solicitarse de forma telemática, con una antelación mínima de 15 días a la celebración de la misma.

*Artículo 29. Criterios generales respecto al número de actividades.*

1. Los criterios generales en período lectivo, del 1 de octubre al 15 de junio, serán los siguientes:

a) Sesiones de enseñanza: Se podrá realizar semanalmente una sesión de enseñanza.

b) Jornadas o encuentros entre unidades de iniciación: Mensualmente se podrá realizar una única jornada o encuentro dentro del calendario acordado entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y la federación correspondiente, por lo que sumarán en total 9 encuentros a lo largo del periodo lectivo. Este calendario se publicará en la página web de la Diputación Foral de Gipuzkoa a principios del curso escolar.

c) Durante las vacaciones escolares de Navidad y Semana Santa, excepcionalmente se podrán realizar semanalmente 2 sesiones de enseñanza o una sesión de enseñanza y una jornada o encuentro entre unidades de iniciación conformados previamente. Asimismo, se podrán autorizar sesiones de competición o torneos en la forma y con los límites señalados en el artículo anterior.

d) La participación u organización de encuentros entre unidades de iniciación fuera del calendario acordado, requerirá autorización expresa y previa de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

2. Los criterios generales en período no lectivo (del 16 de junio al 31 de agosto) serán los siguientes: Durante este periodo que abarca diez semanas, se podrán realizar hasta un máximo de 20 sesiones de enseñanza y 10 jornadas o encuentros (a razón de tres sesiones semanales) cualquiera que sea su distribución en el tiempo, continua o discontinua, con los contenidos que se consideren idóneos, de conformidad con los criterios técnicos que se establezcan para cada modalidad, tal y como se recoge en el anexo II.

*Artículo 30. Requisitos técnicos y organizativos para la autorización de las unidades de iniciación.*

1. A nivel organizativo:

Las sesiones de enseñanza se realizarán en los días de la semana que se acuerden con el Ayuntamiento del municipio donde se desarrollen, y se informará a la Diputación Foral de Gipuzkoa del calendario previsto en la solicitud de autorización. Cualquier variación respecto a los días, horas y lugares de actividades indicadas en la solicitud, deberá ser notificada a la Diputación Foral de Gipuzkoa, previa autorización del ayuntamiento correspondiente. El incumplimiento de esta obligación constituirá una infracción administrativa tipificada en el artículo 143.u de la Ley 2/2023, de 30 de marzo, de la actividad física y del deporte del País Vasco (o norma que en el futuro la sustituya).

2. Instalaciones y material:

a) Deberán contar con al menos un balón por cada escolar que participe en la unidad de iniciación.

b) Los materiales auxiliares (pivotes, chinos, aros, petos, balones medicinales, picas) deberán de ser adecuados a la edad y demás circunstancias de los y las escolares y a las características de la modalidad deportiva.

c) Las unidades de iniciación de fútbol sala, balonmano y baloncesto se realizarán en recintos cerrados, en los que el pavimento sea elástico y no abrasivo.

EK\CV GAO-I-2024-03254

d) Futbol eta errugbi modalitateetako hastapeneko unitateak esparru irekietan egingo dira, bai belar artifizialeko zelaietan, bai belar naturaleko zelaietan.

3. Kategoria, joko eremua eta gune horietan parte har dezaketen ikasleen gehieneko kopurua, modalitatearen arabera:

d) Las unidades de iniciación de fútbol y rugby se realizarán en recintos abiertos, tanto en campos de hierba artificial como de hierba natural.

3. Categoría, espacio de juego y número máximo de escolares que pueden participar en dichos espacios por modalidad:

| *Modalitatea* | *Kategoria* | *Joko eremua* | *Ikasle kopurua* |
|---|---|---|---|
| Saskibaloia | Benjaminak | Kirol anitzeko kantxaren 1/3 | 16-20 ikasle |
| | Alebinak | | |
| Eskubaloia | Benjaminak | Kirol anitzeko kantxaren 1/3 | 14-16 ikasle |
| | Alebinak | | |
| Futbola (diziplina) | Benjaminak | Futbol zelaiaren 1/4 | 12-15 ikasle |
| | Alebinak | | |
| Areto futbola (diziplina) | Benjaminak | Kirol anitzeko kantxaren 1/3 | 12-14 ikasle |
| | Alebinak | | |
| Errugbia | Benjaminak | Errugbi zelaiaren 1/4 | 14-16 ikasle |
| | Alebinak | | |

| *Modalidad* | *Categoría* | *Espacio de juego* | *N.º de escolares* |
|---|---|---|---|
| Baloncesto | Benjamín | 1/3 de la cancha polideportiva | 16-20 escolares |
| | Alevín | | |
| Balonmano | Benjamín | 1/3 de la cancha polideportiva | 14-16 escolares |
| | Alevín | | |
| Fútbol (disciplina) | Benjamín | 1/4 del campo de fútbol | 12-15 escolares |
| | Alevín | | |
| Fútbol sala (disciplina) | Benjamín | 1/3 de la cancha polideportiva | 12-14 escolares |
| | Alevín | | |
| Rugby | Benjamín | 1/4 del campo de rugby | 14-16 escolares |
| | Alevín | | |

*31. artikulua. Futbol modalitateko alebinen kategoriako bigarren urteari zuzendutako irakaskuntzen araubide espezifikoa.*

1. Futbol diziplinako alebinen kategoriako bigarren urteari dagozkion hastapeneko unitateak bi motatakoak izan daitezke: hobetzeko hastapeneko unitateak eta oinarrizko hastapeneko unitateak. Bi taldeetako ikasleek izena emanda egon beharko dute eta ikastetxearekin batera parte hartu beharko dute eskola kirolaren programako saio guztietan, II. kapitulu honetako 24. artikuluan adierazten den moduan.

2. Hobetzeko hastapeneko unitateak irizpide hauen arabera gidatuko dira:

a) Gipuzkoako Foru Aldundiak gonbidapen bidez izendatuko ditu hobetzeko hastapen unitateak izango dituzten Gipuzkoako klubak, Gipuzkoako Futbol Federazioari eta modalitate horretako erreferentziazko kirol-erakundeei kontsulta egin ondoren.

b) Eskola aldian zehar, hobetzeko hastapen unitateek astean irakaskuntza saio bat izango dute, eta gehienez ere astean bi saiora zabaldu daiteke. Astean bi saio egin nahi dituen erakundeak baimen eskaeran adieraziko du.

c) Eskola aldian zehar, hobetzeko hastapeneko unitateek gehienez ere hamabi jardunaldi edo saio izango dituzte, gehi

*Artículo 31. Régimen específico de las enseñanzas dirigidas al segundo año de la categoría alevín de fútbol.*

1. Las unidades de iniciación en la disciplina de fútbol correspondiente al segundo año de la categoría alevín, podrán ser de dos clases: unidades de iniciación de perfeccionamiento y unidades de iniciación de base. Los y las escolares de ambos grupos, deberán estar inscritos e inscritas y participar con su centro escolar, en todas las sesiones del programa de deporte escolar, tal y como se indica en el artículo 24 de este Capítulo II.

2. Las unidades de iniciación de perfeccionamiento se regirán por los siguientes criterios:

a) La Diputación Foral de Gipuzkoa designará mediante invitación los clubes guipuzcoanos que contarán con unidades de iniciación de perfeccionamiento previa consulta a la Federación Guipuzcoana de Fútbol y de entidades deportivas de referencia en la modalidad.

b) A lo largo del periodo lectivo, las unidades de iniciación de perfeccionamiento incluirán 1 sesión semanal de enseñanza que podrá ampliarse a un máximo de 2 sesiones semanales. La entidad que desee realizar dos sesiones semanales, lo indicará en la solicitud de autorización.

c) A lo largo del periodo lectivo, los encuentros o sesiones de competición para las unidades de iniciación de perfecciona-

beste bi jardunaldi edo saio gehigarri, Eguberrietako eta/edo Aste Santuko oporraldietan egin beharrekoak.

d) Eskola alditik kanpo, hobetzeko hastapeneko unitateek 29. artikuluan adierazitako irizpide orokorrei jarraituko diete.

3. Oinarrizko hastapeneko unitateek foru agindu honen 29. artikuluan ezarritako irizpideei jarraituko diete, bai eskola aldian, bai eta oporraldian ere. Hau da, eskola aldian asteroko irakaskuntza saio bat eta gehienez bederatzi topaketa egingo dira, eta Eguberrietan eta Aste Santuan bi jardunaldi edo saio gehigarri egin ahal izango dituzte.

*Lehen xedapen gehigarria. Eskola kiroleko jarduera programa.*

Uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuaren 3.6 artikuluan eta kirol arloan eskumena duen foru departamentuaren egiturari buruzko foru dekretuan ezarritakoaren arabera, departamentu horretako foru diputatuak urtero onartuko ditu hurrengo ikasturteko eskola kiroleko jardueren programa eta egutegia.

*Bigarren xedapen gehigarria. Adostasunezko amaiera.*

1. Baimenak hitzarmenen bidez emango dira, arestian aipatutako ebazpenek prozedurari amaiera emateko dituzten ondorio berberekin; zehazki, Gipuzkoako Foru Aldundiak eskola kirola kudeatzeko lurralde historikoko udalerriekin sinatzen dituen hitzarmenen bidez edo Gipuzkoako kirol federazioekin eskola kiroleko urteko programen jardueretan laguntza teknikoa emateko sinatzen dituen hitzarmenen bidez.

2. Hitzarmen bidezko amaiera horren araubide juridikoa honako xedapen honetan aurreikusitakoa izango da: urriaren 1eko 39/2015 Legea, Herri Administrazioen Prozedura Administratibo Erkideari buruzkoa, 86. artikulua.

*Xedapen iragankorra. Foru aginduaren mailaz mailako aplikazioa eskola ikasleentzako kirol hastapeneko unitateetan.*

Foru agindu hau III. kapituluan jaso gabeko beste modalitate batzuei mailaz maila aplikatu aurretik, modalitate bakoitzerako edo modalitate talde bakoitzerako irizpideak zehaztuko dira, ahal dela federazioekin honako alderdi hauei buruz sinatutako hitzarmenen bidez: adinak, titulazioak, arduradun teknikoak, jarraibide orokorrak, helburuak eta edukiak, lehiaketa jarduerak antolatzen parte hartzeko baldintzak, modalitateak irakasteko jardueren ezaugarriak (ingurunera egokitzekoak, hastapen generikokoak, teknifikaziokoak edo bestelakoak), emakumeen eta gizonen berdintasuneko irizpideak, bai eta sartzea komeni den beste edozein irizpide ere. Kirol modalitate edo modalitate talde bakoitza baimentzeko irizpide hauek kirol arloan eskumena duen departamentuko foru diputatuak onetsiko ditu, berariaz emandako foru agindu baten bidez.

*Azken xedapena.*

Kirol Zuzendaritza gaitzea, beharrezkoak diren aldaketa xedapenak eman ditzan, foru agindu honek arautzen dituen hastapen unitateetako jarduerak 2024-2025 denboralditik aurrera egiteko aldiak egokitzeko.

*Azken xedapena. Indarrean jartzea.*

Foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

I. ERANSKINA

*Eskola kirolaren arloan eskumena duen udal organoak nahitaezko txosten ez-loteslea egiteko orientazio gida.*

Eranskin honetan zenbait alderdi jaso dira, toki erakundeak egindako txostenaren edukiak eskola ikasleentzako kirol hastapeneko unitateen kudeaketaren balorazio globala egiteko hel-

miento consistirán en un número máximo de 12 jornadas o sesiones, más 2 jornadas o sesiones adicionales a celebrar en los períodos vacacionales de Navidad y/o Semana Santa.

d) Durante el periodo no lectivo, las unidades de iniciación de perfeccionamiento seguirán los criterios generales que se indican en el artículo 29.

3. Las unidades de iniciación de base seguirán los criterios establecidos en el artículo 29 de esta orden foral tanto en periodo escolar como en periodo vacacional. Es decir, a lo largo del periodo lectivo se realizará una sesión semanal de enseñanza y un número máximo de 9 encuentros, pudiendo realizar 2 jornadas o sesiones adicionales en Navidad y Semana Santa.

*Disposición adicional primera. Programa de actividades de deporte escolar.*

De acuerdo con lo establecido en el artículo 3.6 del Decreto 125/2008, de 1 de julio y el decreto foral de estructura del Departamento foral competente en materia de deportes, el Diputado o Diputada foral de dicho departamento aprobará anualmente el programa de actividades y calendario de deporte escolar del curso siguiente.

*Disposición adicional segunda. Terminación convencional.*

1. El otorgamiento de las autorizaciones podrá efectuarse convencionalmente, con los mismos efectos finalizadores del procedimiento que las resoluciones señaladas anteriormente, a través de los convenios que la Diputación Foral de Gipuzkoa suscriba con los municipios del Territorio Histórico para la gestión del deporte escolar o de los que suscriba con las federaciones deportivas guipuzcoanas para la asistencia técnica de éstas a las actividades de los programas anuales de deporte escolar.

2. El régimen jurídico de esta terminación convencional será el previsto en el artículo 86 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

*Disposición transitoria. Aplicación gradual de la orden foral a las unidades de iniciación deportiva para escolares.*

La aplicación gradual de la presente orden foral a otras modalidades no incluidas en el Capítulo III irá precedida de la determinación de los criterios para cada modalidad o grupo de modalidades, preferentemente por vía de convenios con las federaciones, sobre edades, titulaciones, responsables técnicos, directrices generales sobre objetivos y contenidos, condiciones para la participación en la organización de actividades de competición, características de las actividades de enseñanza (adaptación al medio, de iniciación genérica, de iniciación específica, de tecnificación o cualesquiera otras), criterios de igualdad de mujeres y hombres, así como cualquier otro criterio que se considere oportuno incluir. Estos criterios de autorización para cada modalidad deportiva o grupo de modalidades serán aprobados por orden foral específica del diputado o diputada foral del Departamento competente en materia de deportes.

*Disposición final.*

Habilitar a la Dirección de Deportes a dictar las disposiciones de modificación necesarias para adaptar los periodos para realizar las actividades de las unidades de iniciación reguladas por la presente Orden Foral a partir de la temporada 2024-2025.

*Disposición final. Entrada en vigor.*

La presente orden foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

ANEXO I

*Guía orientativa para la elaboración del informe preceptivo y no vinculante por el órgano municipal competente en materia de deporte escolar.*

Se incluyen en este anexo, algunas cuestiones para facilitar que el contenido del informe emitido, responda al objetivo de proporcionar una valoración global de la gestión de las unidades de

EK\CV GAO-I-2024-03254

buruari erantzun diezaion errazteko. Hala, toki erakundeak adierazi beharko du erakunde antolatzaileek betetzen dituztela baimentzeko baldintzak.

Txostenak azalduko du soilik bateragarri ote diren jarduerak hezkuntza sistemak eskaintzen dituen irakaskuntzekin eta dagokion eskola kirolaren programaren garapenarekin, eta behar bezala arrazoitu beharko du bateraezintasuna, halakorik egonez gero.

Txosten eredua:

iniciación deportiva para escolares por parte de la entidad local. Así, la entidad local, deberá poner de manifiesto si las entidades organizadoras cumplen los requisitos para ser autorizados.

El informe versará exclusivamente sobre la compatibilidad de las actividades con las enseñanzas que ofrece el sistema educativo y con el desarrollo del correspondiente programa de deporte escolar, debiendo motivar suficientemente el informe la eventual incompatibilidad.

Modelo de informe:

EK\CV GAO-I-2024-03254

**UDALAREN ADOSTASUNA: Kirol hastapeneko unitatea (kirol eskola)**

Erakunde antolatzailea: ____________ Ikasturtea: /

Toki erakundea: ____________ Eguna: /

Modalitatea/diziplina (hautatu bat):

| Saskibaloia | Eskubaloia | Futbola | | Errugbia |
|---|---|---|---|---|
| | | Futbola | Areto futbola | |
| | | | | |

**ENTRENAMENDUAK:** Kirol eskolak honela egingo ditu entrenamendu saioak:

| Taldearen izena | Jaioteguna | Taldea edo ekipoa:<br><br>(E/G/mistoa) * | Asteko egunak | Instalazioa | Ordutegia | Hizkuntza |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |

**** E:** emakumezkoak* ***G:** gizonezkoak*

**KONPROMISOA:** Kirol hastapeneko unitateko arduradunak honako hau onartzen du:

☐ Aurkeztutako informazioa aldatzen bada, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta dagokion udalari jakinaraziko dio.

☐ Hastapeneko unitateko entrenamendu saioek ez dituzte oztopatuko ikasleen eskola kiroleko saioak.

**ESKOLA KIROLEAN ESKUMENA DUEN UDAL ORGANOA** ______________________________ Udalean eskola kirolaren arloko eskumena duen udal organoak erabaki du _________________________ erakundearen kirol hastapeneko unitateari dagokionez:

☐ Adostasuna ematea

☐ Adostasunik ez ematea

EK\CV GAO-I-2024-03254

*Ezezkoa emateko justifikazio objektiboa:*

Erakundeak eskaintzen dituen jarduerak ez dira bateragarriak hezkuntza sistemak eskaintzen dituen irakaskuntzekin eta dagokion eskola kirolaren programaren garapenarekin.

Arrazoia(k):______________________________________________________________________

Sinadura eta zigilua

(eskola kirolean eskumena duen udal organoa)

EK\CV GAO-I-2024-03254

**CONFORMIDAD DEL AYUNTAMIENTO: Unidad de iniciación deportiva (escuela deportiva)**

Entidad organizadora: [ ] Curso escolar: [ / ]

Entidad Local: [ ] Fecha: [ / / ]

Modalidad/disciplina (seleccionar una):

| Baloncesto | Balonmano | Futbol | | Rugby |
|---|---|---|---|---|
| | | Futbol | Futbol Sala | |
| | | | | |

4) **ENTRENAMIENTOS**: La escuela deportiva realizará sus sesiones (entrenamientos) de la siguiente manera:

| **Nombre del grupo** | **Fecha nacimiento** | **Grupo o equipo:<br><br>(F/M/Mixto) *** | **Días de la semana** | **Instalación** | **Horario** | **Idioma** |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |

***F:** *femenino* **M:** *masculino*

5) **COMPROMISO**: La persona responsable de la unidad de iniciación deportiva acepta:

☐ Que si hubiera un cambio en la información que se aporta, informará del mismo a la Diputación Foral de Gipuzkoa y al ayuntamiento correspondiente.

☐ Que las sesiones de entrenamiento de la unidad de iniciación no obstaculizarán las sesiones de deporte escolar de los y las escolares.

6) **ORGANO MUNICIPAL COMPETENTE EN DEPORTE ESCOLAR**: El órgano municipal competente en materia de deporte escolar del municipio de ______________________________ ha decidido con respecto a la unidad de iniciación deportiva de la entidad ____________________________________:

☐ Otorgar la conformidad

☐ No otorgar la conformidad

EK\CV GAO-I-2024-03254

*Justificación objetiva para su denegación*:

Las actividades ofertadas por la entidad no son compatibles con las enseñanzas que ofrece el sistema educativo y con el desarrollo del correspondiente programa de deporte escolar.

Motivo(s):______________________________________________________________________________

__________________________________________________________________________________________

____________________

Firma y sello

(El órgano municipal competente en materia de deporte escolar del municipio)

II. ERANSKINA/ANEXO II

Jardueren egutegia zehazteko irizpide orokorren laburpen taula
Cuadro resumen de criterios generales para la determinación del calendario de actividades

| *Fasea*<br>*Fase* | *Datak*<br>*Fechas* | *Jarduera mota*<br>*Tipo de actividad* | *Saio kopurua (gehienez)*<br>*N.º de sesiones (máximo)* |
|---|---|---|---|
| Eskola aldia<br>Périodo escolar | Urriak 1 - ekainak 15<br>1 de octubre - 15 de junio | Irakastekoa<br>Docente | - Astean saio 1<br>- 1 vez a la semana |
| | | Topaketa/Jardunaldiak<br>Encuentros/Jornadas | - Ikasturtean 9 topaketa (hilabetean behin)<br>- 9 encuentros en el curso (una vez al mes) |
| Opor aldia (eskola aldian zehar)<br>Periodo de vacaciones (durante el periodo escolar) | Eguberriak eta<br>Aste Santua<br>Navidades y<br>Semana Santa | Irakastekoa edo/eta lehiaketakoa<br>Docente y/o competición | - Irakasteko 2 saio astean edo irakasteko saio bat eta lehiaketa 1 (torneo)<br>- 2 sesiones semanales de docencia o 1 sesión de docencia y 1 competición (torneo)<br>- Gehienez 2 lehiaketa (torneo) ikasturtean zehar<br>- Máximo 2 competiciones (torneos) a lo largo del curso |
| Eskola gabeko aldia<br>Periodo no escolar | Ekainak 16 - abuztuak 31<br>16 de junio - 31 de agosto | Irakastekoa edo/eta lehiaketakoa<br>Docente y/o competición | - Irakasteko 20 saio gehienez<br>- Máximo 20 sesiones de docencia<br>- Lehiaketako 10 saio gehienez<br>- Máximo 10 sesiones de competición<br>Guztira: 30 saio gehienez<br>Total: máximo 30 sesiones |

EK\CV GAO-I-2024-03254